

Euskara hitza noiz agertu zen lehenik?

Alberto Cañada Juste-k, aski irakurtzen ez den *Principe de Viana*-n eman digu lehenbiziko lekukotasuna; aldizkari horretan laurogeita hamasei orrialdetako saioa idatzi zuen *Banu Kasi*, nafar musulman erresumaren kondairaz eta zortzigarren orrialdean, 797. urtean Oskan gertatuena aiparri Ahmad ibn Umar al Udri-ren “Marca superior” delakoaz dioena dakar, alegia arabe ziren Tuxibiak asaldatu zirela, Huesca hiriaz jabetu eta gero:

“Gauzak halaxen, hirian zegoen ospe haundiko aszeta batek otoitz egin zuen Banu Salama arabe Tuxibiengandik jasaiten zuten bidegaberia, expoliatioa eta nahikeria guziez Jainkoak libra zetzan, hori herri xumeak eskatzen baitzuen, eta Bahlul Ibn Marzuk-ekin Jainkoak askatzailea bidali zuen, zeinek gorabehera askoren artean, bildu ahal zituen gudariekin Banu Salamak garaitu baitzituen eta hil...”.

Bahlul Ahuñamendi aldeko gizon baten semea zen eta gizon hori musulman egin zelarrik, aita alegia izenez aldatu eta *Marzuk Ibn Uskara* bezala ezagutua izan zen.

Naski *Uskara* ez da ez arabe ez bereber izena, baina herritar izen bat eta garai hartan *euskaldun* erran nahi zukeen ezen Koldo Mitxelena-k erakutsi moduan *erdara* erabilia zen erdaldun lekuan, halaxe agertzen baita, *Mikel Erdara*, Nafarroan XI. mendean.

Beraz *Uskara* hitza bere Nafar itxurapean VIII. mendekoa da Marzuk-en aita, naski 797. urtea baino lehen jaioa baitzen, semea orduko musulman gudaria zenez.

Txomin Peillen
Université de Pau et des Pays de L'Adour

